



## NORMALIZAZIO KASU AURRERATUAK: ZERGATIK ETA ZERTARAKO

**Karmele Perez Lizarralde**

*HUHEZI, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea*  
Helbide elektronikoa: karmele\_perez@huhezi.edu

*Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuak* proiektu bat da duela hiru urte abiatu zena Soziolinguistika Klusterraren baitan. Dagoeneko lau kasu argitaratu dira eta beste bi daude aurten argitaratzeko bidean. Artikulu honekin proiektuaren hainbat alderdi azaldu nahi ditugu: ezaugarriak eta helburuak, egindako ibilbidea, erabilitako lan-prozedura, kasu bakoitzaren aukeratzeko irizpideak eta zabalkunderako bideak. Saiatuko gara hori guztia arin eta argi egiten.

### ZERTAN DATZA PROIEKTUA?

Soziolinguistika Klusterra, sortu zenetik, buru-belarri aritu da dinamika berriak eragiten eta sustatzen, ezagutza soziolinguistikoa ikertzeko, zabaltzeko eta aplikatzeko ditugun beharrei erantzuteko. Bere egitekoa da Euskal Herrian hizkuntza normalizazio prozesuan inplikaturik dauden erakunde eta taldeentzat datuak, metodologiak eta bestelako materialak eskaintzeko egitasmoak lantzea, beti ere, ezagutza eta normalizazio-emaitzak hobetzeko helburuarekin.

Klusterraren proiektuen artean bada bat praktika onak biltzera jo duena, alegia, lan munduan euskara normalizatzeko esperientzia aurreratuak edo ereduak jasotzera jo duena. Izan ere, behin eta berriz

entzun dugu euskarak lan arloan gabezia handiak dituela, euskararen normalkuntzarako eremu zaila dela... Baina gabezia eta zailtasun horiek gorabehera, uste dugu hamaika esperientzia interesgarri badirela baliagarri izan daitezkeenak enpresa eta erakundeen euskararako jauzia nola egin ikusteko.

Horren harira, jakina da lan munduan euskara planak asko gehitu direla azken urteetan eta hainbat aholkularitza-enpresa eta euskaltegi dabilela euskara planak kudeatzen. Datu zehatzak bilduta aurkitu ez baditugu ere, badakigu 176 erabilera-planek jaso dutela esparru sozio-ekonomiko pribaturako diru-laguntza aurten EAEn, beraz, hortik gorakoak izango dira erakunde eta enpresetako euskara-planak, gehienak Gipuzkoan, gutxiago Bizkaian eta batzuk Araban. Nafarroan ere badira dagoeneko ale batzuk, eta, momentuz, bakarra dago Iparraldean. Badakigu euskara lan munduan sustatzeko gero eta hitzarmen gehiago dagoela udalen eta enpresen artean eta 157 udaletan dagoela EBPN martxan, herri mailako eremu guztietan eragiteko gogoz. Eta badira beste hainbat egitasmo eta adierazle lan hori dinamizatzeko sortu direnak: Kontseilua, Euskararen ziurtagiria, Lanhitza, Bikain ziurtagiriak... Mugimendu handia dago, egun, esparru honetan. Eta mugimendu horrek eragindako praktika onak jasotzea izan da gure gain hartu dugun egitekoa.

Galdera bat izan dugu abiapuntu proiektu hau abian jartzerakoan: zer egin euskara norbere erakundearen normalizatzeko? Hori jakin dezagun, beste erakunde batzuetan zer egin duten ikusi eta ikasi nahi izan dugu.

Proiektuaren egiteko nagusia zera izan da: euskara planekin abiatu diren erakundearen esperientzia eta ezagutza bildu eta zabaltzea. Horrekin hedatu nahi izan ditugu euskararen normalizazioan baliagarriak diren ikuspegi eta praktikak, bai enpresa, bai hezkuntza eta bai administrazio arloetan. Eta horretarako, ereduak jo ditugun erakundeak aukeratu, beraiek lortutako arrakastaren gakoak aztertu, eta horien berri emateko dibulgaziozko argitalpenak idatzi ditugu. Hori dira, azken batean, kasu aurreratuak, alegia, erakunde jakin batzuen esperientzien gakoak, beste erakunde batzuentzat normalizazio-bidea egiteko baliagarri gerta daitezkeenak.

## HASIERAN, LANKIDETZA

Eredu baten bila hasita aurkitu genituen Ezagutzaren Clusterraren "Kudeaketa aurreratuak enpresen kasuak". Alegia, bazeuden argitalpen labur batzuk enpresen kudeaketa-esperientzia aurreratuak berri ematen zutenak, beste enpresa batzuekin praktika onen klabeak konpartitzen zituztenak. Eredu interesgarria zen guretzat eta egoki ikusi genuen ideia hura soziolinguistika arloa egokitzea, kudeaketa kasuen ordean euskararen normalizazio kasuak jaso, aztertu eta zabaltzeko. Guk ere, Ezagutzaren Clusterrak kudeaketakoak bezala, normalizazio kasu aurreratuak bilduma moduan irudikatzen genituen eta, hortaz, argitalpenen ezaugarriak ere

---

*Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuak proiektu bat da duela hiru urte abiatu zena Soziolinguistika Klusterraren baitan. Dagoeneko lau kasu argitaratu dira eta beste bi daude aurten argitaratzeko bidean. Artikulu honekin proiektuaren hainbat alderdi azaldu nahi ditugu: ezaugarriak eta helburuak, egindako ibilbidea, erabilitako lan-prozedura, kasu bakoitza aukeratzeko irizpideak eta zabalkunderako bideak.*

*Horren harira, jakina da lan munduan euskara planak asko gehitu direla azken urteetan eta hainbat aholkularitza-enpresa eta euskaltegi dabilela euskara planak kudeatzen. Datu zehatzak bilduta aurkitu ez baditugu ere, badakigu 176 erabilera-planek jaso dutela esparru sozio-ekonomiko pribaturako diru-laguntza aurten EAEn, beraz, hortik gorakoak izango dira erakunde eta enpresetako euskara-planak, gehienak Gipuzkoan, gutxiago Bizkaian eta batzuk Araban. Nafarroan ere badira dagoeneko ale batzuk, eta, momentuz, bakarra dago Iparraldean.*

egokiak ziren gure helburuetarako: formatu bereko liburukiak, laburrak, erredakzio arinekoak eta, ondorioz, irakurterrazak. Gure nahia dibulgazioa baita, alegia, euskara planak abiatu dituzten edo abiatzeko dauden erakundeek erraz jaso dezatela beste batzuen esperientzien berri, erraz uler ditzatela beste batzuen esperientzien ardatzak. Kasuek, azken batean, esperientzia eta hausnarketaren bidez ikasketa bultzatu nahi baitute.

Ezagutzaren Clusterrak begi onez ikusi zuen gure proiektua, besteak beste, haienaren osagarria zelako eta ordura arte ez zeukaten kudeaketa aurreratuko esparru bati erantzuteko baliagarri zitzaielako, beraz, hasieratik eskaini ziguten haien babesa eta laguntza, bai eta haien metodologia erabiltzeko aukera ere. Bi klusterren arteko lankidetzaren lehen pausoa izan zen hura.

### **LAN-PROZEDURA: SISTEMA BATEN BILA**

Behin ideia gauzatzeko pausoak zehaztuta, lan taldea osatu genuen. Zuzendaria unibertsitateak jarri zuen; koordinatzailea, Klusterrak berak; eta idazlea unibertsitatean aurkitu genuen, idazle trebea eta proiektua gauzatzeko gogotsu arituko zena. Dirua Euskadiko Kutxak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak jarri zuten. Eta lankide Ezagutzaren Clusterrekoak izan genituen. Haiengandik jaso genuen hasierako formazioa: argitalpenen ezaugarriak eta kasuak egiteko metodologia eskura genituan. Gure lana izan zen metodologia hori euskara plan aurreratuen hedapen-beharretara egokitzea eta osatzea.

Ordurako bagenbiltzan erakunde egokien bila. Haiak identifikatu, aukeratu, haien onespena jaso eta berriemaileak identifikatu ziren, alegia, aukeratutako enpresa bakoitzean enpresako ibilbidearen berri emango zuten pertsona egokiak: pertsonal burua, lehendakaria, aholku-elkarteko hizkuntza teknikaria, erabilera-taldeko partaidea... Erredaktorearen lana izan zen elkarrizketak egitea, elkarrizketak transkribatzea eta horko materialarekin kasuak osatzea. Testu horien kontrastea egiten zuten zuzendariak, koordinatzaileak, aholkulariek eta erakunde protagonistak berak. Hain zuzen ere, aztertutako erakundeak izan ziren prozesu honen filtro nagusia: beren buruak ondo islatuta ikusi behar zuten, ados egon behar zuten testuak erakusten zuen ibilbidearekin. Haiena izan zen azken hitza, aurrera egiteko agindua.

Eta horren guztiaren ondoren, argitalpena eta zabalkundea izan ziren azken pausoak. Baina bazen oraindik zer pentsatu eta erabaki: argi zegoen liburuxka laburrak izan behar zutela, baina zein hizkuntzatan? Kasuek lan munduan eragina izan behar bazuten, gogoan izan behar genuen enpresako buru asko ez direla euskaldunak, askotan erabakiak horrelako pertsonengan daudela eta askotan euskaraz ez dakitenek ere egin dezaketela euskararen alde. Ezinbestean, Euskal Herriko enpresa eta erakundeetako pertsonengana iritsi nahi bagenuen, Euskal Herriko hiz-

kuntzetan argitaratu behar zen: euskaraz, jakina, baina baita gaztelaniaz eta frantsesez ere.

Zabalkundeari dagokionez, bi formatu izan genituen gogoan: pape-rean, liburuki gisa eta dohainik, normalkuntza planak kudeatzen dituzten aholkularitza-enpresen bitartez ahalik eta enpresa eta erakunde gehienetara bidali ziren; eta bertsio elektronikoa jarri zen eskura Soziolin-guistika Klusterraren eta Ezagutzaren Clusterraren web orrietan. Jardu-naldi txiki bat ere egin zen lehen urteko bi kasuak aurkezteko.

Oraindik ere prozedura berarekin jarraitzen dugu. Ezagutzaren Clusterra Innobasque agentzia bihurtu da, baina gure lan- eta zabalkun-de-prozedurek bere horretan dira, modu egokiak eta eraginkorrak izan baitira normalkuntza-kasuak eraikitzeke eta ezagutarazteke. Siste-mak funtzionatzen du.

## KASUAK AUKERATZEKO IRIZPIDEAK

Ez da erraza erabakitzea zein irizpideren arabera jokatu. Nola baloratu eta neurtu zein den kasu aurreratua eta zein ez? Zein alderdiri errepara-tuko diogu aukeratzeko orduan?

Lehenik, **arrakastaren** irizpidea jaso genuen kudeaketa aurreratuko kasuetatik: kasu aurreratua izateko, enpresa edo erakunde arrakastatsua izan behar du. Baina zelako arrakasta? Ekonomikoa? Soziala? Enpresariala? Euskara normalkuntzaz ari garela, uste dugu arrakasta hori bi adierazletan ikusten dela: batetik, erakunde edo enpresa horrek lortu duen normalizazio mailan, alegia, erakundeko pertsonengan eta erakundearengan berarengan lortu den ezagutza eta erabilera mailan; eta, bestetik, metodologian, alegia, urteetako esperientziak erakusten dituen estrategia eta prozeduretan.

Bigarrenik, kontuan izan behar dugu euskararen normalizazioan duen **eragina** ere. Eta eragin horrek bi norabidetara begira jartzen gaitu: barrura begira, nolako eragina duen langileen motibazioan, ezagutzan eta erabileran; eta kanpora begira, nolako oihartzuna duen bere inguru-nean edo bere sektorean.

Hirugarrenik, garrantzitsua da baloratzea kasuaren **hedagarritasu-na**, alegia, beste leku batzuetan aplikatzeko modukoa izatea. Izan ere, ez digu balio kasu batek, oso ona izanda ere, ez badu parekatzeke aukerarik ematen, ez bada beste batzuen abiapuntu beretik abiatu eta ez baditu bes-te batzuek izan ahal dituzten arazo berberak gainditu.

Laugarrenik, **sektorea** ere erabaki beharreko irizpidea da. Enpresak izan behar dute derrigorrez? Zer motatako enpresak? Hori izan zen lehen urteko apustua: lan-mundua bi industria-enpresaren bidez azaltzea. Bai-na horrek ezin zuen normalkuntza kasuen esparrua agortu, lan-mundu-ko planak askoz zabalagoak direlako eta adibide guztien premia dugula-ko. Zergatik ez administrazioa edo hezkuntza eremua? Batzuetan pribatua eta beste batzuetan publikoa...

---

*Proiektuaren egiteko nagusia zera izan da: euskara planekin abiatu diren erakundeen esperientzia eta ezagutza bildu eta zabaltzea. Horrekin hedatu nahi izan ditugu euskararen normalizazioan baliagarriak diren ikuspegi eta praktikak, bai enpresa, bai hezkuntza eta bai administrazio arloetan. Eta horretarako, eredugarri jo ditugun erakundeak aukeratu, beraiek lortutako arrakastaren gakoak aztertu, eta horien berri emateko dibulgaziozko argitalpenak idatzi ditugu. Hori dira, azken batean, kasu aurreratuetak, alegia, erakunde jakin batzuen esperientzien gakoak, beste erakunde batzuentzat normalizazio-bidea egiteko baliagarri gerta daitezkeenak.*

*Eredu baten bila hasita aurkitu genituen Ezagutzaren Clusterraren "Kudeaketa aurreratuko enpresen kasuak". Alegia, bazeuden argitalpen labur batzuk enpresen kudeaketa-esperientzia aurreratuen berri ematen zutenak, beste enpresa batzuekin praktika onen klabeak konpartitzen zituztenak. Eredu interesgarria zen guretzat eta egoki ikusi genuen ideia hura soziolinguistika arlorako egokitzea, kudeaketa kasuen ordez euskararen normalizazio kasuak jaso, aztertu eta zabaltzeko. Guk ere, Ezagutzaren Clusterrak kudeaketakoak bezala, normalizazio kasu aurreratua bilduma moduan irudikatzen genituen eta, hortaz, argitalpenen ezaugarriak ere egokiak ziren gure helburuetarako: formatu bereko liburukiak, laburrak, erredakzio arinekoak eta, ondorioz, irakurterazak.*

Eta, azkenik, bada beste aldagai bat kontuan hartu beharrekoa: erakunde edo enpresa kokatuta dagoen **zonalde soziolinguistikoa**, horrek eragin nabarmena baitu hasierako baldintzetan.

Argi daukagu irizpide horien konbinazioak bilatu behar ditugula eta askotariko kasuak ekarri nahi ditugula argitara, beste batzuen bide erakusle.

## KASUAK ZERTARAKO

Azaldu dugu zer eta zeren arabera egin nahi dugun. Baina oraindik falta zaigu argi azaltzea zein helbururekin abiatu dugun proiektua. Zer lortu nahi dugu esandako guztiarekin?

Euskararen normalizazioan kasu eredugarri izan diren praktika onak ezagutarazi nahi ditugu eta horiekin eredu baliagarriak eman euskara-plan bat martxan duenari edo jarri nahi duenari. Hausnarketa egiteko ideiak eta adibideak eman nahi dizkiogu, eta lagundu nahi diogu erakundeen hizkuntza kudeaketarako baliagarri diren praktiken gainean hausnartzen eta erakundeetan euskara normalizatzeko klabeetan sakontzen. Horrek esan nahi du, kasu bakoitzaren barruan, zutabe edo giltza horiek identifikatzen eta ardatzen saiatu behar dugula. Horiek izango dira beste erakunde edo enpresa batzuentzat jarraibide. Horiek eta baita zailtasunen, zalantzen edo bidegurutzeen aurrean hartutako erabakiak ere.

Eta horretaz guztiaz gain, kasuak interesgarriak izan daitezke formazioarako ere. Eta formazio hori bi eremutan gauza daiteke: eremu akademikoan, unibertsitateko materia edo gradu-ondokoen eskutik; eta euskara-planen kudeaketa eremuan, aholkularitza-enpresen eskutik. Biak ala biak izan daitezke hausnarketarako eta formazioarako bide egoki eta aberatsak. Hori bideratzeko, eta berriz ere kudeaketa kasu aurreratuen ereduari jarraiki, hasi gara kasu bakoitzari egokitutako ohar pedagogikoak gehitzen, gogoeta sustatzeko baliabide eraginkorrak izan daitezkeelakoan.

## AZTERTUTAKO KASUAK: ZENBAIT ESPARRU ETA HAINBAT GAKO

Kasuak 2007an hasi ziren gauzatzen. Hasi ginenean, **enpresetako euskara planak** geneuzkan gogoan eta horren arabera aukeratu ziren bi lehenak: ELAY eta EIKA. Zeintzuk irizpide hartu ziren kontuan aztertutako guztien artean horiek biak aukeratzeko? Ekonomikoki enpresa arrakastatsuak izateaz gain, urtetako esperientzia zuten planetan eta normalkuntza emaitza bikaina zuten. Gainera aholku-enpresa ezberdinek zeramaten haien kudeaketa, eta horrek ere irizpide-aniztasunari egoki erantzuten zion.

Sektoreek askotarikoak izan behar dutela-eta, 2008an **administrazioa** eta **lanbide heziketa** hartu ziren aztergai. Administrazioa Bergarako Udalaren azterketarekin gauzatu zen, eta bereziki baloratu zen horretarako barrura begira enpresa gisa izan duen ibilbidea nahiz kanpora begira

herri mailan sustatu duen dinamika. Eta lanbide heziketaren aurrerapauso Elgoibarko IMHren bidez azaldu da: esanguratsua izan da kasua heziketaren eta lan munduaren artean egiten duen zubi-lanarengatik.

Aurreko kasu guztiek badute zerbait komunean: zonalde soziolinguistiko oso euskaldunean edo nahiko euskaldunean kokatzen direla. Beraz, 2009ko kasuetarako, esparru aldaketa ez ezik, zonalde soziolinguistikoaren aldaketa ere proposatu da: **eskoletako planak** ekarriko ditugu eta eskola horiek zonalde soziolinguistiko ez hain euskaldunetan daude: Lizarran eta Irunen. Horrez gain, lehenengoaren normalkuntza plana *Euskaraz Bizi* Ikastoletako programan kokatzen da, eta, bigarrenarena, Hezkuntza Saitetik kudeatzen den *Ullibarri* programan. Berriz ere, eragile aniztasuna garrantzitsua da.

Hasieratik esan dugun moduan, askotariko irizpideak, askotariko erreferentziak eta askotariko ereduak bilatzen ditugu gure kasu aurreratuen katalogoa osatzeko orduan. Hona hemen kasu horien zertzelada batzuk.

**ELAY, bide erakusle (2007).** ELAY Taldea aitzindari izan zen lan-munduko planak ezartzeko orduan, horregatik azpimarratu genuen beste guztientzat bide erakusle izan dela. 1991 arte ez zen inon euskara planik egin. Aurretik euskararen erabilera areagotzeko lanik egina bazen ere, ELAY Taldean egin zuten euskararen erabilera sustatzeko lehen proiektu pilotua, *Elhuyar* aholkularitza-enpresaren eta Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren laguntzarekin. Lan-talde batek aurkeztutako ideia Zuzendaritzak asanbladan proposatu zuen, eta denek onartu zuten proiektu hari ekitea. Hasieran, formazioa eta komunikazio-zirkuluak antolatu ziren; kanpoko teknikaririk gabeko fase autonomoagoa etorri zen geroago; eta euskararen erakundetzea, azkenik. Azken pauso handi hori lortzeko, plana enpresaren prozeduretan bertan txertatu zuten, kalitatezkoetan, hain zuzen ere.

**EIKA, lan-gune euskalduna (2007).** EIKA Koop. E.k bere buruari “lan-gune euskalduna” deitu ahal izateko, euskaraz lan egiteko konpromisoa izan du abiapuntu eta xede. Buelta eman dio zonalde soziolinguistiko euskaldun batean eta langile euskaldun askoren artean izan ohi den gaztelaniaz lan egiteko joerari. Aldaketa horren oinarriak izan dira, lehenik, erakundeak inguruarekin duen konpromisoa, ondoren, langileen borondate eta parte hartzea, eta, azkenik, *Emun* aholkularitza-enpresaren akuilua. Guztien arteko ahaleginarekin, EIKAk euskarari lekua egin dio lan-munduan, gazteek eskolan jasotzen duten heziketari jarraipena emateko lekua. Bere adibideak besteei ere hori nola egin erakusten die.

**IMH, Makina Erremintaren Institutua (2008).** Makina bat aldagai aipa daitezke IMHko arrakastaren giltzatat. Horien artean batzuk berezkoak dira edo kanpo-eragileek bermatu dituzte: ingurune soziolinguistiko euskaldunean egotea, Administrazioaren eragina (Udalak “Gurean Bai” egitasmoa eta EBPn garatzea), irakaskuntzaren eremukoa izanik euskalduntze prozesuetan bereziki sartutako eremua izatea... Eta beste batzuk barruko

---

*Behin ideia gauzatzeko pausoak zehaztuta, lan taldea osatu genuen. Zuzendaria unibertsitateak jarri zuen; koordinatzailea, Klusterrak berak; eta idazlea unibertsitatean aurkitu genuen, idazle trebea eta proiektua gauzatzeko gogotsu arituko zena. Dirua Euskadiko Kutxak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak jarri zuten. Eta lankide Ezagutzaren Clusterrekoak izan genituen.*

**Zabalkundeari dagokionez, bi formatu izan genituen gogoan: paperean, liburuki gisa eta dohainik, normalkuntza planak kudeatzen dituzten aholkularitza-enpresen bitartez ahalik eta enpresa eta erakunde gehienetara bidali ziren; eta bertsio elektronikoa jarri zen eskura**  
**Soziolinguistika Klusterraren eta Ezagutzaren Clusterraren web orrietan. Jardunaldi txiki bat ere egin zen lehen urteko bi kasuak aurkezteko.**

indarraren eta landutako estrategien batura dira: langileen bultzada eta euskara ikasteko taldeak, euskararen arauak kudeaketa planean txertatuta egotea, eta, bereziki, erabilitako metodologia integrala, alegia, *Ahize* aholkularitza-enpresaren 7 *programak*: erabilera, ezagutza, motibazioa, erakundetzea, komunikazioa, finantziarioa eta jarraipena. Azken finean, bermatu eta uztartu nahi dituzte bezeroaren eskaera, zerbitzuaren kalitatea, banakako en hizkuntza-eskubideak eta enpresetara iritsi arteko hizkuntza-katea

**Bergarako Udala: Udalean eta herrian euskaraz (2008).** 20 urteko ibilbidea egin du euskararen garapenean, eta esan dezakegu plan integrala eta koherentea lortu duela, hau da, udal barrura zein kanpora begira egin duela lana eta planak era berean eragin diola erakunde barruko zein herriko hizkuntza normalkuntzari. Kasu honetan ere hainbat alderdi azpimarratu ahal dira: hizkuntza gaitasun handia, euskararen legearen zein hizkuntza eskakizunak zehazten zituen dekretuaren bermea, AEBE eta EBPN planak... Guztiak helburu berarekin: Udalean eta herrian euskaraz normaltasun osoz funtzionatzea. Horrek bi erronka planteatzen ditu: bata, herritarrak Udalera euskara erabiliz inguratzea; eta bestea, herriko erakunde publiko zein pribatuak euskara erabiltzera bultzatzea eta Udaletik horretarako behar duten laguntza guztia eskaintzea. Erronka horiek gainditzeko, ezinbestekoa da, jakina, pertsonen inplikazioa, euskaraz dakitenena eta ez dakitenena, alegia, ez dakitenak ere planaren alde egotea, eta horrek politikarien atxikimendua ere eskatzen du.

## **AZKEN GOGOETA**

Saiatu gara azaltzen zergatik eta zertarako biltzen eta argitaratzen ari garen normalkuntza kasu aurreratuak. Uste dugu kasuek, bilduma interresgarria osatzeaz gain, euskara planak dituzten eta izan nahi dituzten enpresa eta erakundeei pistak, adibideak... eskaintzen dizkietela. Alegia, izan ditzaketen zailtasunen eta zalantzen aurrean, beste batzuek probatu eta urratu dituzten bideak giltza interesgarriak izan daitezke itxita zeuden ateak zabaltzeko. Hori sinesten dugu.

Zehaztu ditugu kasuak aukeratzeko kontuan izan ditugun ezaugarriak, eta azaldu dugu erabilitako irizpideak askotarikoak izan direla. Izan ere, normalkuntza-bideen alderdi eta egiteko modu asko erakutsi nahi baititugu, askotariko erakundeen bide-erakusle.

Kasuen zabalkundeaz ere hitz egin dugu. Garrantzitsua iruditzen baitzaigu, banatze hutsetik haratago, kasuen ezaugarriez gogoeta bultzatzea. Horren harira, 2008ko kasuen aurkezpena Baionako Udako Ikastaroetan egin genuen 2009ko uztailean. Testuinguru aparta izan zen, kasuak zabaltzeko ez ezik, kasuen ezaugarriez eta erabileraz gogoeta egiteko. Kasuen ezaugarriez, aztertutako erakundeek beraiek hitz egin zuten, garrantzitsua baita protagonistek lehen pertsonan kontatzea zer prozesu bizi izan duten eta zer lehenetsi duten prozesu horietan zehar.

Kasuen erabileraren eta aplikazioaren gaineko gogoeta guk geuk bultzatu genuen. Bertan bildu ginen erakundeetako, aholkularitza-enpresetako, euskaltegi-tako eta unibertsitateko eragileok nola eta zertarako erabili ahal ditugu kasuok? Oro har, kasu bakoitzaren gakoak azpimarratu beharra aipatu zen, alegia, kasu bakoitzean zeintzuk izan diren giltzak garapena bultzatu dutenak edo zailtasunei aurre egiten lagundu dutenak. Horien gaineko gogoeta eraginkorra izango da euskara-plana egiten ari den enpresarentzat, normalkuntza-egitasmoen gainean ikasten ari denarentzat... Gogoeta horren lagungarri aurkeztu ziren ohar pedagogikoak, hausnarketarako tresna gisa. Uste dugu hori dela kasuak osatzera etorri den azken elementua, kasuen erabilera dinamizatzeko lagungarri izan daitekeena. Erabiliko dituztenen iritzia jasotzen saiatuko gara, jakiteko benetan lagungarriak gertatu diren ala ez.

Bitartean, urtean bi kasu ateratzen jarraituko dugu, Euskararen Normalkuntza Kasu Aurreratuaren katalogoa aberasteko ez ezik, euskararen normalkuntzan eragiteko ere. Kasuetan azpimarratutako gakoek horretan lagunduko ahal dute! ■

---

*Saiatu gara azaltzen zergatik eta zertarako biltzen eta argitaratzen ari garen normalkuntza kasu aurreratuak. Uste dugu kasuek, bilduma interesgarria osatzeaz gain, euskara planak dituzten eta izan nahi dituzten enpresa eta erakundeei pistak, adibideak... eskaintzen dizkietela.*